



Azpeitiko Udala

**HERRIKO EKONOMIAREN SUSTAPENERAKO DIRULAGUNTZA
PROGRAMA 2025 -II ERANSKINA-: INDUSTRIA PROIEKTU ESTRATEGIKO EDO
BERRITZAILEAK ETA INBERTSIOAK, BAI INDUSTRIA SEKTOREAN ZEIN
ERAIKUNTZA SEKTOREAN LAGUNTZERA BIDERATUTAKO DIRULAGUNTZAK
(25-24D / 2025SUSD/ 2025DIRU0010)**

-Prozeduraren ebazpena II.ERANSKINA-

Alkatetzak **2025ko ekainaren 5ean** emandako ebazpenaren bidez, Azpeitiko Herriko Ekonomia sustatzera zuzendutako dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak eta 2025 ekitaldirako deialdia onartu zituen (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2025eko ekainaren 19an argitaratua, 115. zk).

Deialdi horretan ondoren adierazten diren laguntza modalitateak aurreikusten ziren, bakoitzari dagozkion helburuekin:

1. eranskina: Zerbitzu sektorean eta/edo lehenengo sektorean jarduerak indartzera bideratutako dirulaguntzak

2. eranskina: Industria proiektu estrategiko edo berritzaileak eta inbertsioak, bai industria sektorean zein eraikuntza sektorean laguntzera bideratutako dirulaguntzak

3. eranskina: Ekintzailetasuna sustatuz, bereziki gizarte-ekonomian eta izaera estrategikoa edo berritzailea duten jardueretan enpleguaren sorrera bultzatzeko dirulaguntzak

4. eranskina: I. sektorean, zerbitzuen sektorean, ostalaritzan nahiz industrian enplegua sustatzeko dirulaguntzak

Dirulaguntza modalitate hau arautzen duen oinarrien 4.3 puntuan eskaerak aurkezteko epea zehazten du. Eskaerak aurkezteko epe-muga 2025eko urriaren 15ean amaitu zen, eta dagokigun honetan, epe barruan aurkeztu diren 137 eskaera erabakiko dira.

Dirulaguntza horiek arautzen dituzten oinarri orokorreko 9. puntuan ezartzen denez, eskaerak Udaleko Idazkaritza Saileko teknikariak baloratu ditu Azpeitia Berritzen S.A.ko teknikariek eta Iraurgi Lantzen SA lantaldearekin. Balorazio-txostena Udalaren Ekonomia Batzordeari igorri zitzaion 2025eko abenduaren 4an, eta honek bere egin ondoren, dagokion ebazpen proposamen arrazoitua eman du Alkatetzak abenduaren 9an eta Laguntzaren oinarrien 9.4 artikulua araber, behin behineko ebazpen hori Udalaren Web orrian argitaratu zen dirulaguntza programa atalean.

Dagokion epealdia igarota eta alegaziorik ez dela egon kontuan izanda, oinarrietako 10.1 artikulua jarraiki Alkatetzak dagokion ebazpena emango du.

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduera bete eta behar bezala justifikatu badu, ordainketa osoa egingo da. Hala ere, **oinarrien 12. artikulua**ekin bat, ordainketa aurreratua ere egin ahal izango dira, jarduera horiek gauzatzeko beharrezko finantzaketa bermatzeko, justifikazioa aurkeztu aurretik. Kasu hauetan, ordainketa **bi zatitan** egingo da: lehenengo %40ko ordainketa, deialdiaren ebazpena egin ondoren, eta bigarren ordainketa gainerako %60a, proiektua amaitu eta dirulaguntzaren helburua bete dela behar bezala justifikatu ondoren.

Laguntzaren	ordainketak	Udalaren	2025eko	aurrekontuaren
1.1100.471.241.00.01.2025	“Transf. arruntak,	Ekonomia	sustapena”	eta
1.1100.471.241.00.02.2025	“Transf. arruntak, zerbitzu	sektorea	eta lehen	sektorearen



Azpeitiko Udala

sustapena” partidatik egingo dira; zeinetan kreditua handitu den 2025eko abenduaren 19ko alkatetza kreditu aldaketa ebazpen bidez eta guztira 485.819,40€-ko diru izendapena dago.

Eta eskumenari dagokionez, laguntzaren oinarriak jasotakoarekin bat, **LEIRE GOENAGA UZKUDUN**, Udalaren alkateordeak (Alkatetzak 2025eko abenduaren 16n emandako eskuordetze ebazpena), **ERABAKI DUT**:

Lehen: Azpeitiko Herriko Ekonomia sustatzera bideratutako dirulaguntzak onartzea eta horien ordainketa egitea ondorengo taulan zerrendatutako eskatzaileei. Dirulaguntza hauek **II. Eranskinean** jasotako modalitateari dagozkio: Industria proiektu estrategiko edo berritzaileak eta inbertsioak, bai industria sektorean zein eraikuntza sektorean laguntzera bideratutako dirulaguntzak.

Azpeitiko Herriko Ekonomia Sustatzera zuzendutako Dirulaguntza Programa 2025 (2025USD / 25-24D) Deialdia: (2025eko ekainak 19ko GAOan argitaratuak 115 zk.)

-BEHIN BETIKO EBAZPENA-

II ERANSKINA- Industria proiektu estrategiko edo berritzaileak eta inbertsioak, bai industria sektorean zein eraikuntza sektorean sustatzen laguntzeko dirulaguntzak

Zb	Data	Espedientea	NAN/IFK	Onartua	Egintza	Gastu hautagarria	Onartutako zenbatekoa	1.ord. %40 edo %100	2.ord. %60
7	2025/08/05	2025SUSD0007	B05308572	Bai	II Inbertsioa	95.161,83 €	10.000,00 €	10.000,00 €	
9	2025/09/03	2025SUSD0009	B20690574	Bai	II Inbertsioa	167.495,00 €	10.000,00 €	4.000,00 €	6.000,00 €
25	2025/09/19	2025SUSD0025	B75140830	Bai	II Inbertsioa	95.092,07 €	10.000,00 €	10.000,00 €	
34	2025/09/26	2025SUSD0034	B75134098	Bai	II Inbertsioa	144.000,00 €	10.000,00 €	4.000,00 €	6.000,00 €
41	2025/09/30	2025SUSD0041	B20153532	Bai	II Inbertsioa	97.137,70 €	10.000,00 €	10.000,00 €	
53	2025/10/02	2025SUSD0053	B75182360	Bai	II Proiektua	24.175,33 €	6.000,00 €	6.000,00 €	
56	2025/10/03	2025SUSD0056	B75065193	Bai	II Energia berriztagarriak	14.266,00 €	5.000,00 €	2.000,00 €	3.000,00 €
58	2025/10/06	2025SUSD0058	B20342242	Bai	II Inbertsioa	92.650,08 €	10.000,00 €	10.000,00 €	
66	2025/10/09	2025SUSD0066	B20869947	Bai	II Inbertsioa	220.000,00 €	10.000,00 €	4.000,00 €	6.000,00 €
73	2025/10/10	2025SUSD0073	A20036059	Bai	II Inbertsioa	16.902,85 €	5.000,00 €	5.000,00 €	
74	2025/10/10	2025SUSD0074	B20954509	Bai	II Inbertsioa	300.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €	
78	2025/10/10	2025SUSD0078	B20537668	Bai	II Inbertsioa	120.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €	
80	2025/10/10	2025SUSD0080	Y8011593V	Bai	II Eraikuntza-Inbertsioa	2.765,45 €	829,64 €	331,86 €	497,78 €
02	2025/10/14	2025SUSD0102	B75002543	Bai	II Proiektua	5.644,04 €	8.000,00 €	8.000,00 €	
05	2025/10/14	2025SUSD0105	B10961373	Bai	II Proiektua	10.947,19 €	6.000,00 €	6.000,00 €	
06	2025/10/14	2025SUSD0106	B75052803	Bai	II Inbertsioa	125.500,00 €	10.000,00 €	4.000,00 €	6.000,00 €
18	2025/10/15	2025SUSD0118	A20163275	Bai	II Inbertsioa	80.634,00 €	10.000,00 €	4.000,00 €	6.000,00 €
UZTIRA:							140.829,64€	107.331,86€	33.497,78€

Bigarrena: Jarraian zehazten diren espediente hauetako onuradunen laguntzaren ordainketa baldintzatuta geratuko da oinarrietako **2.9 puntuan** jasotako baldintza betetzera: udalean jarduerari dagokion tramitazioa amaituta egotea edo tramitazioan izatea.



Azpeitiko Udala

Udalan jarduerari dagokion tramitazioa amaituta edo tramitazioan izatea egiaztatu behar duten erakunde onuradunak honako hauek dira:

Azpeitiko Herriko Ekonomia Sustatzera zuzendutako Dirulaguntza Programa 2025 (2025USD / 25-24D)
Deialdia: (2025eko ekainak 19ko GAOan argitaratuak 115 zk.)

-BEHIN BETIKO EBAZPENA-

II ERANSKINA- Industria proiektu estrategiko edo berritzaileak eta inbertsioak, bai industria sektorean zein eraikuntza sektorean sustatzen laguntzeko dirulaguntzak

Zb	Data	Espedientea	NAN/IFK	Onartua	Egintza	Gastu hautagarria	Onartutako zenbatekoa	1.ord. %40 edo %100	2.ord. %60
55	2025/10/03	2025USD0055	B75085159	Bai	II Inbertsioa	90.000,00 €	10.000,00 €	0,00 €	10.000,00 €
116	2025/10/15	2025USD0116	B22475198	Bai	II Proiektua	8.863,70 €	6.000,00 €	0,00 €	6.000,00 €
GUZTIRA:							16.000,00€	0,00€	16.000,00€

Hirugarrena: Onuradunek beharrezkoa izango dute laguntzaren justifikazioa aurkeztea, segidan jasotako epeetan. Justifikazioak oinarri orokorren 13. artikuluan eta eranskinari dagokion oinarri espezifikoan jasotako dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

-Oinarrietako 12. artikuluan zehaztutakoaren arabera, laguntzak justifikatzeko azken eguna, 2025eko abenduaren 15a izan da.

- Azpillerro bakoitzean zehaztutako diruz laguntzeko jarduketa-datak amaitzen direnetik zenbatzen hasita hilabeteko epean

- Zuriketa agiriak aurkezteko azken eguna 2026ko urriaren 15a izango da.

Laugarrena: Onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.

Erakunde onuradunek dirulaguntza onartzeak berekin dakar oinarrietan eta Azpeitiko Udalaren Dirulaguntzak Emateko Ordenantza Arautzailean oro har ezarritako betebeharrak betetzea.

Oinarri espezifikoetan jarduera-ildo bakoitzerako jasotzen diren betebeharrak espezifikoek gain, honako hauek ere bete beharko dituzte:

- Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza eman dela jakinarazi eta hamabost eguneko epean onuradunak dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da.
- Laguntzaren xede den gastua emakida-ebazpenean ezarritako epean gauzatzea.
- Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten agiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketan xede izan baitaitezke. Azpeitiko Udalarik eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari beren eginkizunak betetzean eskatzen dieten informazio guztia ematea.
- Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera objektibo zein subjektibo aldatu bada, Azpeitiko Udalarik horren berri ematea, idatziz. Jakinarazpen hori gorabehera horren berri izan eta hurrengo hamabost egun naturalen barruan egin beharko da, eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu aurretik.



Azpeitiko Udala

- e) Hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatzea, eta erakundearen komunikazio, argitalpen, programa, ikastaro eta abarretan eta/edo web-orrietan emakumeen kontrako edozein irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista saihestea.
- f) Dirulaguntzaren xede diren proiektu edo jarduketan finantzaketan Azpeitiko Udalak izan duen lankidetzari publizitate egokia ematea. Horretarako, haren erakunde-irudia sartuko da, bai eta finantzaketa publikoari buruzko legendak ere, karteletan, oroitzapenezko plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan, eta komunikabideetan egindako agerpenetan aipamena egingo da.

Bostgarrena: Azpeitiko Herriko ekonomia sustatzera bideratutako dirulaguntza ez onartzea, kasu bakoitzean jasotako arrazoiaren arabera, ondorengo taulan zerrendatutako eskatzaileei. Dirulaguntza hauek **II. Eranskinean** jasotako modalitateari dagozkio: Industria proiektu estrategiko edo berritzaileak eta inbertsioak, bai industria sektorean zein eraikuntza sektorean laguntzera bideratutako dirulaguntzak.

Azpeitiko Herriko Ekonomia Sustatzera zuzendutako Dirulaguntza Programa 2025 (2025SUSD / 25-24D) **Deialdia: (2025eko ekainak 19ko GAOan argitaratuak 115 zk.)**

-BEHIN BETIKO EBAZPENA-

II ERANSKINA- Industria proiektu estrategiko edo berritzaileak eta inbertsioak, bai industria sektorean zein eraikuntza sektorean sustatzen laguntzeko dirulaguntzak

Zb	Data	Espedientea	NAN/IFK	Onartua	Egintza	Gastu hautagarria	Onartutako zenbatekoa	1.ord. %40 edo %100	2.ord. %60
10	2025/09/03	2025SUSD0010	A20163275	Ez	II Inbertsioa	Errepikatutako eskaera			

Seigarrena: Laguntzaren ordainketak Udalaren 2025eko aurrekontuaren 1.1100.471.241.00.01.2025 “Transf. arruntak, Ekonomia sustapena” eta 1.1100.471.241.00.02.2025 “Transf. arruntak, zerbitzu sektorea eta lehen sektorearen sustapena” partidatik egingo dira.

Zazpigarrena: Erabaki hau Udalaren web orrian eta Estatuko Dirulaguntzen Datu Basean argitaratuko da. Era berean, argitaratzen den egunean bertan, Udalak abisu bat bidaliko die erakunde eskatzaile guztiei posta elektronikoan, ebatzitako laguntzen berri emateko.

Zortzigarrena: Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsua aurkezteko Alkatetza honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berriazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela,



Azpeitiko Udala

egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Azpeitian, sinadura elektronikoaren datan



EKS | CSV: ESKUa4cfa8c1-6dbe-4a76-9107-1ba8b382fb8e

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01810>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01810>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025DIRU0010-II eranskina/II eranskina ()